



Karabeleko

Bideragarria al da kruziferoen laborantza otsaila eta ekaina artean kantauri isurialdean?

Azalorea, brokolia eta aza bezalako kruziferoen laborantza oso hedatua eta sustraitua dago Euskadin; ezinbestekoak dira gure baratze eremuetan. Barietate ekologikoek gure herriko baldintza klimatikoetan duten portaerari buruzko datuak oso urriak dira, eta interes berezia izan beharko lukeela deritzogu; izan ere, oso ziklo ezberdineko barietateekin aurkitzen gara merkatuan. Esaterako, azaloretan 80 eta 180 egun (ereintza-bilketa) arteko ziklo ezberdintasuna aurki dezakegu barietatearen eta klimaren arabera; brokoliaren kasuan, berriz, zikloak 80-120 egun (ereintza-bilketa) artean ibili ohi da.

Hori gutxi balitz, gure merkatuan eskaera handia duten barazki hauek, udan landatu (uztaila-iraila) ondoren, mailakaturiko uzta lortzeko arazoak izan ohi ditugu (klimak eta barietate bakoitzaren ezaugarriek asko baldintzatzen gaituzte), baita uzta denboran luzatzeko ere. Aldiz, European, ereintza egutegi askoz zabalagoekin topatu ohi gara, landu beharreko barietateak oso kontuan dituztenak. Arrunta da, oso, hazi ekologikoen katalogoetan ereintza datak urtarrila, otsaila, martxoa, apirila eta maiatza izatea barietate jakin batzuentzat. Gure herriko baratze gintza kulturaren ezohiko garaiak dira, baina, aztertutak izan ez direnak.

Ondorioz, oinarritzko entsegu-lana gauzatzen ari gara, 9 aza barietate, 6 brokoli barietate eta 17 azalore barietate landuz. Emango dizuegu emaitzen berri.